Eusko Jaurlaritzak Arte Garaikidearen Euskal Museoaren finantzaketan laguntzeaz interesa du.

Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da Eusko Jaurlaritzarekin lankidetza hitzarmen bat izenpetzea, horren bidez Jaurlaritzak Gasteizko Arte Garaikidearen Euskal Museoa eraiki eta hornitzeko proiekturako egin beharreko diru ekarpenen araubidea finkatzeko.

Arabako Foru Aldundiaren Diputatu Kontseiluak, 2000ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eusko Jaurlaritzarekiko hitzarmena izenpetzea onartu du, Arte Garaikidearen Euskal Museoa kokatzeko Arabako Foru Aldundia sustatzen ari den etxea eraiki eta hornitzeko obren finantzaketan hark emango duen lankidetza eratzeko asmoz, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko Foru Arauaren 6.1.2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, beharrezkoa da aipaturiko akordioa Arabako Biltzar Nagusiek berrestea.

Biltzar Nagusien Funtzionamen Arautegiaren 127. artikulua -VI. Tituluko II. Kapituluko bigarren sekzioa- hitzarmenak izapidatzeari dagokionean aldatzeari buruz martxoaren 14ko 20/89 Foru Arauan ezarritakoan oinarrituz,.

ARTIKULU BAKARRA

Berresten da Gasteizko Arte Garaikidearen Euskal Museoa eraiki eta hornitzeko proiekturako Eusko Jaurlaritzak egin beharreko diruekarpenak ezartzeko harekin egindako Lankidetza Hitzarmena, Diputatu Kontseiluak bere akordioan erabaki zuen moduan.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko abenduaren 5a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

El Gobierno Vasco está interesado en colaborar en la financiación del Museo Vasco de Arte Contemporáneo.

Por todo lo anterior, se estima necesario suscribir un Convenio de Colaboración con el Gobierno Vasco, por el que se fije el régimen de las aportaciones del mismo al proyecto de edificación y equipamiento del Museo Vasco de Arte Contemporáneo en Vitoria,.

El Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Álava, en sesión celebrada el 14 de noviembre de 2000, ha aprobado la suscripción del Convenio con el Gobierno Vasco con el objeto de articular la colaboración del mismo en la financiación de las obras de edificación y equipamiento del inmueble que promueve la Diputación Foral de Álava para instalar el Museo Vaso de Arte Contemporáneo, y, de conformidad con lo previsto en el artículo 6.1.2 de la Norma Foral de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, procede la ratificación de dicho Acuerdo por las Juntas Generales de Álava.

En base a lo dispuesto en la Norma Foral 20/89, de 14 de marzo, sobre la modificación del artículo 127, sección segunda, Cap. II, Título VI, del Reglamento de Funcionamiento de las Juntas Generales en lo que a tramitación de Convenios se refiere,.

ARTÍCULO ÚNICO

Se ratifica el Convenio de Colaboración con el Gobierno Vasco por el que se fija el régimen de las aportaciones del mismo al proyecto de edificación y equipamiento del Museo Vasco de Arte Contemporáneo en Vitoria, en los términos acordados por el Consejo de Diputados en su Acuerdo.

Vitoria-Gasteiz, 5 de diciembre de 2000.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**7.626**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2000ko abenduaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Araua onartu zuten:

ABENDUAREN 1EKO, 17/2000 FORU ARAUA, PERTSONA FISIKOEN ERENTAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO FORU ARAUAN JASOAK DIREN OHIKO ETXEBIZITZAREN ALOKAIRUAGATIKO ETA HARTAN EGINDAKO INBERTSIOAGATIKO KENKARIAK ALDATZEN DITUENA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Batzar Nagusietan lantalde bat eratu zen, etxebizitzak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, bereziki gazteei dagokienean, izan beharreko zerga-trataera aztertzeaz arduratutakoa.

Lantalde horren ondorio gisa, Batzarretako zenbait taldek proposamen zehatz bat egin zuten eta berorren funtsezko edukia ondoren zehazten dena da:

Ohiko etxebizitza alokatzeagatiko kenkariari gagozkiola, goratu egiten dira bai kenkari ehunekoak bai kenkari horren gehienezko mugak.

Ohiko etxebizitzako inbertsioaren kenkariari gagozkiola, kenkari-ehunekoak goratzen dira, oraingo kenkari-ehunekoa, inbertsio gisa aplikatu beharrekoa, % 15etik % 25era pasatuz eta % 20ko ehunekoa, finantzaketa gisa aplikatu beharrekoa, % 30 izango da aurrerantzean.

Aurreko aldaketak 35 urtetik beherako zergadunei aplikatzekoak izango dira, betiere zergadun horien zerga-oinarriak, pentsio konpentsagarri eta mantenurako urte sariengatiko murrizketaz gutxituta, 4.500.000 pezetako kopurua (27.045,54 euro) gainditzen ez badu.

Foru Arau honek zenbait Biltzarkide Talderen esaniko proposamena bideratzea du helburu.

1. artikulua: Ohiko etxebizitza alokatzeagatiko kenkaria aldatzea.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 76. artikulua era honetara idatzirik geratuko da:

“76. artikulua. Ohiko etxebizitza alokatzeagatiko kenkaria.

1. Oro har kenkari hau egin ahal izango da:

a) Zergadunaren ohiko etxebizitza alokatzeagatik zergaldian ordaindutako kopuruen % 20, urteko 200.000 pezetako (1.202.02

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**7.626**

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión Plenaria celebrada el día 1 de diciembre de 2000, aprobaron la siguiente Norma Foral:

NORMA FORAL 17/2000, DE 1 DE DICIEMBRE, POR LA QUE SE MODIFICA LA DEDUCCIÓN POR ALQUILER Y POR INVERSIÓN EN VIVIENDA HABITUAL CONTENIDAS EN LA NORMA FORAL DEL IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En las Juntas Generales se constituyó una ponencia encargada de analizar el tratamiento fiscal de la vivienda en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, especialmente referido a la juventud.

Como consecuencia de esta ponencia, diversos Grupos Junteros realizaron una propuesta concreta cuyo contenido básico es el que se detalla a continuación.

Por lo que se refiere a la deducción por alquiler de la vivienda habitual, se elevan tanto los porcentajes de deducción como los límites máximos de ésta.

Respecto a la deducción por inversión en la vivienda habitual, se elevan los porcentajes de deducción, pasando el actual porcentaje de deducción, aplicable en concepto de inversión, del 15% al 25% y el porcentaje del 20%, aplicable en concepto de financiación, pasa a ser del 30%.

Las modificaciones anteriores resultan de aplicación a los contribuyentes con edad inferior a los 35 años y cuya base imponible, minorada en la reducción por pensiones compensatorias y anualidades por alimentos, no supere la cantidad de 4.500.000 pesetas (27.045,54 euros).

La presente Norma Foral tiene por objeto articular la referida propuesta de diversos Grupos Junteros.

Artículo 1.- Modificación de la deducción por alquiler de la vivienda habitual.

El artículo 76 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, quedará redactado de la siguiente forma:

“Artículo 76. Deducción por alquiler de vivienda habitual.

1. Con carácter general podrá deducirse:

a) El 20%, con un límite máximo de 200.000 pesetas (1.202,02 euros) anuales, de las cantidades satisfechas en el período imposi-

euro) gehieneko muga duela, betiere haren zerga-oinarriak, Foru Arau honetako 61. artikuluak aipatzen duen murrizketaz gutxiagotuta, 2.000.000 pezeta (12.020,24 euro) gainditzen ez badu.

b) Zergadunaren ohiko etxebizitza alokatzeagatik zergaldian ordaindutako kopuruen % 15, urteko 150.000 pezetako (901,52 euro) gehieneko muga duela, betiere haren zerga-oinarria, Foru Arau honetako 61. artikuluak aipatzen duen murrizketaz gutxiagotuta, 2.000.001 pezeta (12.020,24 euro) eta 3.500.000 (21.035,42 euro) bitartean baldin badago.

c) Zergadunaren ohiko etxebizitza alokatzeagatik zergaldian ordaindutako kopuruen % 10, urteko 100.000 pezetako (601,01 euro) gehieneko muga duela, betiere haren zerga-oinarria, Foru Arau honetako 61. artikuluak aipatzen duen murrizketaz gutxiagotuta, 3.500.001 pezeta (21.035,43 euro) eta 5.000.000 pezeta (30.050,61 euro) bitartean badago.

2. Aurreko idatz zatiak hori ezartzen baldin badu ere, 35 urtetik beherako zergadunek honako kenkariok erabili ahal izango dituzte:

a) Zergadunaren ohiko etxebizitza alokatzeagatik zergaldian ordaindutako kopuruen % 25, urteko 250.000 pezetako (1.502,53 euro) gehieneko muga duela, betiere haren zerga-oinarriak, Foru Arau honetako 61. artikuluak aipatzen duen murrizketaz gutxiagotuta, 2.000.000 pezeta (12.020,24 euro) gainditzen ez badu.

b) Zergadunaren ohiko etxebizitza alokatzeagatik zergaldian ordaindutako kopuruen % 20, urteko 200.000 pezetako (1.202,02 euro) gehieneko muga duela, betiere haren zerga-oinarria, Foru Arau honetako 61. artikuluak aipatzen duen murrizketaz gutxiagotuta, 2.000.001 pezeta (12.020,24 euro) eta 3.500.000 (21.035,42 euro) bitartean baldin badago.

c) Zergadunaren ohiko etxebizitza alokatzeagatik zergaldian ordaindutako kopuruen % 15, urteko 150.000 pezetako (901,52 euro) gehieneko muga duela, betiere haren zerga-oinarria, Foru Arau honetako 61. artikuluak aipatzen duen murrizketaz gutxiagotuta, 3.500.001 pezeta (21.035,43 euro) eta 4.500.000 pezeta (27.045,54 euro) bitartean badago.

3. Baldin eta 35 urtetik beherako zergadunaren zerga-oinarria, Foru Arau honetako 61. artikuluak aipatzen duen murrizketaz gutxituta, 4.500.000 pezeta (27.045,54 euro) eta 5.000.000 pezeta (30.050,61 euro) bitartean baldin badago, artikulu honetako 1. idatz zatiko c) letran ezarritakoaren arabera dagokion kenkaria aplikatu ahal izango du.

4. Artikulu honen ondorioetarako, zergadunaren adina zehazteko, zergaldia hasten den eguneko egoerari begiratuko zaio.

5. Baterako zerga ordainketan, aurreko 1. eta 2. idatz zatiek aipatzen dituzten oinarri mugak 1.000.000 pezeta (6.010,12 euro) gehituko dira idatz zati horietan ageri diren kasuetako bakoitzean.

6. Baldin eta baterako zerga-ordainketa aukeratzen bada eta pertsona batek baino gehiagok baldin badute kenkari hori aplikatzeko eskubidea, batzuek 35 urte baino gutxiago eta besteek 35 urte baino gehiago dutela, pertsona horietako bakoitzak artikulu honetako 1. eta 2. idatz zatietan ezarritakoaren arabera dagokion ehunekoa eta muga aplikatuko du. Kenkariaren ehunekoa eta muga zehazteko, kontuan izango da familia-unitatearen guztizko zerga-oinarria, Foru Arau honetako 61. artikuluak aipatzen duen murrizketaz gutxituta.

Baldin eta baterako zerga-ordainketa egiten bada eta 35 urtetik beherako pertsonak ezin balezake aplikatu artikulu honetako 2. idatz zatiak aipatzen duen kenkaria, aurreko 1. idatz zatian adierazitako kenkaria aplikatu ahal izango du betiere bere kasuan ezarritako baldintzak betetzen badira.

7. Kode Zibilean ezarritakoari jarraiki, baliogabetasuna, banantze edo dibortzioa agindu den kasuetan, betiere judizialki onetsitako Hitzarmenean familiako etxebizitzaren alokairua zergadunaren kontura bakarrik ordaindu beharra ezarri izan balitz, berorrek eskubidea izango du bere aitorpenean artikulu honek aipatzen duen kenkaria gauzatzeko. Betebehar hori zergadun biek izango balute, kenkariaren ehunekoa, bai eta aplikatu beharreko muga ere, kenkaria egiteko eskubidea izan eta Foru Arau honetako 61. artikuluak aipatzen duen murrizketaz gutxitutako zerga-oinarri handiena duen zergadunaren arabera zehaztuko da. Kenkaria haien artean hainbanatuko da eta bakoitzaren aitorpenean gauzatuko da dagokion proportzioan, artikulu honetan ezarritako mugarekin eta baldintzekin”.

tivo por alquiler de la vivienda habitual del contribuyente, siempre que su base imponible, minorada en la reducción a que se refiere el artículo 61 de esta Norma Foral, no sea superior a 2.000.000 de pesetas (12.020,24 euros).

b) El 15%, con un límite máximo de 150.000 pesetas (901,52 euros) anuales, de las cantidades satisfechas en el período impositivo por alquiler de la vivienda habitual del contribuyente, siempre que en su base imponible minorada en la reducción a que se refiere el artículo 61 de esta Norma Foral, se encuentre entre 2.000.001 pesetas (12.020,24 euros) y 3.500.000 pesetas (21.035,42 euros).

c) El 10%, con un límite máximo de 100.000 pesetas (601,01 euros) anuales, de las cantidades satisfechas en el período impositivo por alquiler de la vivienda habitual del contribuyente, siempre que su base imponible minorada en la reducción a que se refiere el artículo 61 de esta Norma Foral, se encuentre entre 3.500.001 pesetas (21.035,43 euros) y 5.000.000 de pesetas (30.050,61 euros).

2. No obstante lo establecido en el apartado anterior, los contribuyentes con edad inferior a 35 años podrán deducirse:

a) El 25%, con un límite máximo de 250.000 pesetas (1.502,53 euros) anuales, de las cantidades satisfechas en el período impositivo por alquiler de la vivienda habitual del contribuyente, siempre que su base imponible, minorada en la reducción a que se refiere el artículo 61 de este Norma Foral, no sea superior a 2.000.000 de pesetas (12.020,24 euros).

b) El 20%, con un límite máximo de 200.000 pesetas (1.202,02 euros) anuales, de las cantidades satisfechas en el período impositivo por alquiler de la vivienda habitual del contribuyente, siempre que en su base imponible minorada en la reducción a que se refiere el artículo 61 de esta Norma Foral, se encuentre entre 2.000.001 pesetas (12.020,24 euros) y 3.500.000 pesetas (21.035,42 euros).

c) El 15%, con un límite máximo de 150.000 pesetas (901,52 euros) anuales, de las cantidades satisfechas en el período impositivo por alquiler de la vivienda habitual del contribuyente, siempre que su base imponible minorada en la reducción a que se refiere el artículo 61 de esta Norma Foral, se encuentre entre 3.500.001 pesetas (21.035,43 euros) y 4.500.000 pesetas (27.045,54 euros).

3. En el supuesto de que el contribuyente con edad inferior a 35 años tenga una base imponible, minorada en la reducción a que se refiere el artículo 61 de esta Norma Foral, entre 4.500.000 pesetas (27.045,54 euros) y 5.000.000 de pesetas (30.050,61 euros), podrá aplicar la deducción que corresponda de acuerdo con lo establecido en la letra c) del apartado 1 de este artículo.

4. A los efectos de este artículo, para la determinación de la edad del contribuyente se atenderá a la situación existente el día de inicio del período impositivo.

5. En tributación conjunta, los límites de base a que hacen referencia los apartados 1 y 2 anteriores se incrementarán en 1.000.000 de pesetas (6.010,12 euros) en cada uno de los supuestos contemplados en los mismos.

6. En el supuesto que se opte por la tributación conjunta y existan varias personas con derecho a aplicar esta deducción, unas con edad inferior y otras con edad superior a 35 años, cada una de ellas aplicará el porcentaje y límite que le corresponda de acuerdo con lo establecido en los apartados 1 y 2 de este artículo. Para determinar el porcentaje de deducción y el límite se tendrá en cuenta la base imponible total de la unidad familiar, minorada en la reducción a que se refiere el artículo 61 de esta Norma Foral.

En el caso en que se tribute de forma conjunta y la persona con edad inferior a 35 años no pudiera aplicar la deducción a que se refiere el apartado 2 de este artículo, podrá aplicar, siempre que se reúnan los requisitos establecidos en su caso, la señalada en el apartado 1 anterior.

7. En los supuestos en que, de conformidad con lo establecido en el Código Civil, sea decretada la nulidad, separación o divorcio, siempre que en el Convenio aprobado judicialmente se hubiera establecido la obligación de pagar el alquiler de la vivienda familiar a cargo exclusivo del contribuyente, éste tendrá derecho a practicar en su declaración la deducción a que se refiere este artículo. Si tal obligación correspondiera a ambos contribuyentes, el porcentaje de deducción, así como el límite aplicable, se determinará en función del contribuyente con derecho a deducción que tenga mayor base imponible minorada en la reducción a que se refiere el artículo 61 de esta Norma Foral. La deducción se prorrateará entre ellos y se practicará en la declaración de cada uno en la proporción que corresponda, con el límite y requisitos establecidos en este artículo”.

2. artikulua: Ohiko etxebizitzako inbertsioagatiko kenkariren aldaketa.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 77. artikuluko 4. idatz zatia aldatzen da, eta era honetara idatzirik geratuko da:

“4. Kenkaria ondorengoak aplikatzearen emaitza izango da:

a) Inbertsio gisa, % 15 ekitaldian inbertitutako kopuruei, sortutako eta bere kontura joandako gastuak barne.

Ehuneko hori % 25ekoa izango da, artikulu honetako 2. idatz zatiaren c) letrak aipatzen dituen kasuetan izan ezik, zergaduna 35 urtetik beherakoa baldin bada eta gainera haren zerga-oinarriak, Foru Arau honetako 61. artikuluak aipatzen duen murrizketaz gutxituta, 4.500.000 pezetako kopurua (27.045,54 euro) gainditzen ez badu. Ehuneko hori, bai eta hurrengo letrak aipatzen duen % 30eko ehunekoa ere, zergadunak hala eskaturik aplikatuko da, eta beharrezkoa izango da ehuneko bien eraginkortasuna aukeratzea.

Aurreko idatz zatian agindutakoaren ondorioetarako, bai eta hurrengo letrak aipatzen duen % 30ekoa aplikatzeko ere, adina zehazterakoan, zergaldia hasten den eguneko egoerari begiratuko zaio.

Zergadunak inbertsio gisa bata bestearen ondorengo zergaldietan kendutako kopuruen baturak ezin gaindituko du 4.500.000 pezetako zenbatekoa (27.045,54 euro). Foru Arau honetako 46. artikuluan aurreikusitako eran berriz inbertitzeagatik salbuetsitako ondare irabaziaren zenbatekoari % 15 aplikatzearen emaitzaz gutxituko da zenbateko hori, hala badagokio.

Ohiko bigarren edo handik aurreragoko beste etxebizitza bat eskuratzen denean, kenkari hau gauzatzeko ezinbesteko baldintza izango da etxebizitza horretan inbertitutako kopurua handiagoa izatea ohiko etxebizitzagatiko kenkaria gauzatzeko eskubidea sorrarazi duen kopurua baino. Edozein modutara ere, soberakina ondotik etorriko diren zergaldietan kenkaria gauzatzeko eskubidea sorrarazten duen zenbatekoa izango da.

b) Finantzaketa gisa, % 20 ohiko etxebizitzako inbertsiorako erabilitako besteren kapitalak erabiltzeagatik ekitaldian ordaindutako interesei, betiere horiek aldian aldiko ekitaldian edo ondorengo ekitaldietan aurreko letran ageri den kenkaria aplikatzeko eskubidea sorraraz dezaketen kopuruei soilik badagozkie.

Aurreko ehunekoa % 30ekoa izango da, zergaduna 35 urtetik beherakoa baldin bada eta gainera haren zerga-oinarriak, Foru Arau honetako 61. artikuluak aipatzen duen murrizketaz gutxiagotuta, 4.500.000 pezetako kopurua (27.045,54 euro) gainditzen ez badu”.

3. artikulua: Baterako zerga-ordainketari aplikatu beharreko arauen aldaketa.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 92. artikuluko 2. idatz zatiaren d) letra era honetara idatzirik geratuko da:

“d) Foru Arau honetako 76. artikuluaren 1. eta 2. idatz zatiek aipatutako oinarri mugak 1.000.000 pezeta (6.010,12 euro) gehituko dira berorietan ageri diren kasuetako bakoitzean.

Foru Arau honetako 76. artikuluaren 1. eta 2. idatz zatiek aipatutako kenkari ehunekoa eta gehieneko muga zehazteko, kontuan izango da familia-unitatearen guztizko zerga-oinarria, Foru Arau honetako 61. artikuluak aipatzen duen murrizketaz gutxituta. Oinarri horrek zergadun bakoitzak aplikatu ahal izango duen ehunekoa eta gehienezko kenkari muga zehaztuko ditu”.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa Foru Arau hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da indarrean, eta 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.

Bigarrena Arabako Foru Aldundiari ahalmena ematen zaio Foru Arau hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak izan daitezkeen xedapen guztiak emateko.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko abenduraren 5a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

Artículo 2.- Modificación de la deducción por inversión en la vivienda habitual.

Se modifica el apartado 4 del artículo 77 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que quedará redactado de la siguiente forma:

“4. La deducción será el resultado de aplicar:

a) En concepto de inversión, el 15% a las cantidades invertidas en el ejercicio, incluidos los gastos originados que hayan corrido a su cargo.

Este porcentaje será del 25%, excepto en los casos a que se refiere la letra c) del apartado 2 de este artículo, en los supuestos en que el contribuyente tenga una edad inferior a 35 años y además su base imponible, minorada en la reducción a que se refiere el artículo 61 de esta Norma Foral, no supere la cantidad de 4.500.000 pesetas (27.045,54 euros). La aplicación de este porcentaje así como el del 30% a que hace referencia la letra siguiente se efectuará a petición del contribuyente, siendo necesario optar por la operatividad de ambos porcentajes.

A efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, así como para la aplicación del 30% a que se refiere la letra siguiente, para la determinación de la edad se atenderá a la situación existente el día de inicio del período impositivo.

La suma de los importes deducidos por el contribuyente en concepto de inversión a lo largo de los sucesivos períodos impositivos, no podrá superar la cifra de 4.500.000 pesetas (27.045,54 euros) minorada, en su caso, en el resultado de aplicar el 15% al importe de la ganancia patrimonial exenta por reinversión en los términos previstos en el artículo 46 de esta Norma Foral.

Cuando se adquiera una segunda o ulterior vivienda habitual, será requisito ineludible para practicar esta deducción que en la misma se haya invertido una cantidad mayor que la cantidad que haya generado derecho a practicar deducción por vivienda habitual. El exceso será, en su caso, la cantidad generadora del derecho a practicar deducción en los sucesivos períodos impositivos.

b) En concepto de financiación, el 20% a los intereses satisfechos en el ejercicio por la utilización de capitales ajenos utilizados para la inversión en la vivienda habitual, que se correspondan, exclusivamente, con cantidades que puedan generar en el ejercicio de que se trate o en ejercicios siguientes el derecho a aplicar la deducción contemplada en la letra anterior.

El porcentaje anterior será del 30%, en los supuestos en que el contribuyente tenga una edad inferior a 35 años y además su base imponible, minorada en la reducción a que se refiere el artículo 61 de esta Norma Foral, no supere la cantidad de 4.500.000 pesetas (27.045,54 euros)”.

Artículo 3.- Modificación de las normas aplicables a la tributación conjunta.

La letra d) del apartado 2 del artículo 92 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, quedará redactada de la siguiente forma:

“d) Los límites de base a que hacen referencia los apartados 1 y 2 del artículo 76 de esta Norma Foral se incrementarán en 1.000.000 de pesetas (6.010,12 euros) en cada uno de los supuestos contemplados en los mismos.

Para determinar el porcentaje de deducción y el límite máximo a que hacen referencia los apartados 1 y 2 del artículo 76 de esta Norma Foral se tendrá en cuenta la base imponible total de la unidad familiar minorada en la reducción a que se refiere el artículo 61 de esta Norma Foral. Esta base determinará el porcentaje y límite máximo de deducción que podrá aplicar cada contribuyente”.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- La presente Norma Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava y surtirá efectos desde el 1 de enero de 2000.

Segunda.- Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente Norma Foral.

Vitoria-Gasteiz, 5 de diciembre de 2000.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**7.627**

PREMIA FISKALEKO 2/2000 ARAUGINTZA-DEKRETUA BERRESTEKO ERABAKIA, ZEINEN BITARTEZ NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA GARRAIO SEKTOREEI LAGUNTZEKO PREMIAZKO NEURRIEI BURUZKO URRIAREN 6KO 10/2000 ERREGE DEKRETU-LEGERA EGOKITZEN DEN URTARRILAREN 19KO 12/1993 ARAUGINTZAKO FORU DEKRETUA, BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGARENA.

Arabako Biltzar Nagusiek, 2000ko abenduaren 1eko Osoko Bilkuran erabaki zuten berrestea Premia Fiskaleko 2/2000 Araugintza-Dekretua, zeinen bitartez nekazaritza, arrantza eta garraio sektoreei laguntzeko premiazko neurriei buruzko urriaren 6ko 10/2000 Errege Dekretu-Legera egokitzen da urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua, Balio Erantsiaren gaineko Zergarena. Dekretu hau Diputatu Kontseiluak 2000ko urriaren 31ean onetsi eta Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALaren 132. zenbakian argitaratu zen 2000ko azaroaren 15ean.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko abenduaren 4a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**7.627**

ACUERDO DE CONVALIDACIÓN DEL DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 2/2000, QUE ADAPTA AL REAL DECRETO LEY 10/2000, DE 6 DE OCTUBRE, SOBRE MEDIDAS URGENTES DE APOYO A LOS SECTORES AGRARIO, PESQUERO Y DEL TRANSPORTE, EL DECRETO FORAL NORMATIVO 12/1993, DE 19 DE ENERO, DEL IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO.

Las Juntas Generales de Alava, en su Sesión Plenaria celebrada el día 1 de diciembre de 2000, acordaron convalidar el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 2/2000, que adapta al Real Decreto Ley 10/2000, de 6 de octubre, sobre medidas urgentes de apoyo a los sectores agrario, pesquero y del transporte, el Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero del Impuesto sobre el Valor Añadido, aprobado por el Consejo de Diputados el día 31 de octubre de 2000 y publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava número 132 de fecha 15 de noviembre de 2000.

Vitoria-Gasteiz, 4 de diciembre 2000.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**7.628**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2000ko abenduaren 1ean izaniko Osoko Bilkuran, honako Mozioa onetsi zuten:

ABENDUAREN 1EKO 31/2000 MOZIOA, ZEINEN BIDEZ ARABAKO FORU ALDUNDIARI ESKATZEN ZAION 460.00.01 AURREKONTU-PARTIDA, "ALTUBE-ARETA ZATIAN BIDESARI SOZIALA EZARTZEA", BEREHALA BETE DEZALA.

Arabako Biltzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Herrilan eta Hirigintza Sailaren 51. programako 460.00.01 aurrekontu-partida, Altube-Areta Zatian Bidesari Soziala Ezartzea" izenekoa, berehala bete dezala. Aipatu partida Araba Lurralde Historikoaren 2000. urterako Aurrekontu Orokorretan onetsi zen.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko azaroaren 7a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**7.628**

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión Plenaria celebrada el día 1 de diciembre de 2000, aprobaron la siguiente Moción:

MOCIÓN 31/2000, DE 1 DE DICIEMBRE, POR LA QUE SE INSTA A LA DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA AL CUMPLIMIENTO INMEDIATO DE LA PARTIDA PRESUPUESTARIA 460.00.01 "IMPLANTACIÓN PEAJE SOCIAL ALTUBE-ARETA".

Las Juntas Generales de Álava instan a la Diputación Foral de Alava al cumplimiento inmediato de la partida presupuestaria 460.00.01 del programa 51 del Departamento de Obras Públicas y Urbanismo titulada Implantación Peaje Social Altube-Areta, aprobada en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Álava del año 2000.

Vitoria-Gasteiz, 7 de diciembre de 2000.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**7.629**

**Iragarkia**

Jon Iñaki Usategi Díaz de Otalora, Euskal Herritarrok Biltzarkide Taldea-koak Osoko Bilkuran eztabaidatzeko Mozioa aurkeztu du, ofizialki osatu berri den Euskara Batzordearen osaketa eta finantzaketaren inguruan.

Mozio hau Arabako Biltzar Nagusien Iharduera Arautegiko 156. artikuluan aipatuetako bat da, eta beraz, artikulu horri jarraituz, zazpi eguneko epea zabaltzen da biltzarkide taldeek Mozio horretarako emendakinak aurkez ditzaten.

Vitoria-/Gasteiz, 2000.eko abenduaren 4.ean.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**7.629**

**Anuncio**

Jon Iñaki Usategi Díaz de Otalora, Portavoz del Grupo Juntero Euskal Herritarrok, presenta Moción para debate en Pleno, sobre la composición de la oficialmente recién constituida Comisión de Euskera y su financiación.

La Moción es de las señaladas en el artículo 156 del Reglamento de Funcionamiento de estas Juntas Generales de Álava, por lo que de acuerdo con el citado artículo, se abre un período de siete días durante los cuales los Grupos Junteros podrán presentar enmiendas a la citada Moción.

Vitoria-Gasteiz, a 4 de diciembre de 2000.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**7.630**

**Iragarkia**

Arabako Biltzar Nagusien Mahaiak egindako 66. bileran, 2000.eko Abenduaren 4.ean, 06/B/01/0001017 zenbakiko espedienteari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Araugaiean, zenbait aldaketa sartzeko Foru Araugaia aurkeztu du kalifikatu du.

Arabako Biltzar Nagusien Iharduera Arautegiko 110. eta ondoko artikuluei jarraituz, hamabost eguneko epea zabaltzen da biltzarkide jaun-andreek edo biltzarkide taldeek nahi dituzten emendakinak aurkezteko, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Batzordeari idazki arrazoitua bidaliz.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**7.630**

**Anuncio**

La Mesa de estas Juntas Generales de Álava, en su sesión número 66, celebrada el 4 de diciembre de 2000, ha calificado el Proyecto de Norma Foral por la que se introducen diversas modificaciones en la Norma Foral reguladora del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, correspondiente al expediente 06/B/01/0001017.

De conformidad con los artículos 110 y siguientes del Reglamento de Funcionamiento de las Juntas Generales de Álava, se abre un período de quince días durante el cual los Procuradores o Grupos Junteros a quienes interese pueden formular las enmiendas que crean convenientes, mediante escrito motivado a la Comisión de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.